

Aro luze baten bukaera (1982-2009): Nafarroan legeztatutako azken Ikastolak

1. AURREKARIAK

Nafarroako ikastolak abiatzen hasiak ziren XX. mendeko lehen herenean, Gerra Zibila hasi baino lehentxeago, baina azken honek galarazi zuen euren ibilera, beste hezkuntza eta kultura adierazpen batzuekin egin zuen bezalaxe. 60ko hamarraldira arte itxaron behar izan zen hezkuntza fenomeno hau Nafarroan berpizten ikusteko¹.

70ko hamarraldian ikastola txiki anitz sortu ziren eta Diputazioak haiekin zuen jokamoldea anbigua zen, hasiera batez nolabaiteko babesa eskaini baitziren ikastetxe hauei. Une hartan, Nafarroako instituzio gorenetik foru alorreko aukerak aztertzen ziren hezkuntza gaitetan, guztiz konbentziturata baitzeuden foru izaerak hein bateko “autonomia” maila ahalbidetzen zuela. Diputazioko agiritegian aurkitu ditugun dokumentuek erakusten dutenez, argi dago 70ko hamarraldiaren hasieran Erakunde horrek ekarpen batzuk egiteko asmoa zituela. Horien artean, urratsak eman nahi zituen Nafarroakoak berez ziren hezkuntza beharretara egokitze-lan bat egiteko, hots, Nafarroako hezkuntza organo gorena zen Hezkuntza Batzorde Nagusia berregituratzeko. Halaber, nahi zuela “foru” edukiak sartu Irakasle Eskolan. Berdin gertatu zen beste edozein hezkuntza gaitan propiotzat hartuz gero, derrigorrezkoa ez zen eskolaldiko etapetako euskarazko irakaskuntza, esaterako. Horregatik, Nafarroako Diputazioko Irakaskuntza Zerbitzuak uste izan zuen garai hartan ikastolek sortzen zioten legezko arazoa konpondu ahal izango zuela, euren izaera heteroklitoa gorabehera. 1972an, Diputazioko Irakaskuntza Zerbitzuko arduradunek behin eta berriz adierazi zuten Estatuarekin egin beharre-

1. Irene López-Goñik tesia egina du Nafarroako Garaiko ikastolen historiari buruz (1931-1982). Iruñeko Euskara Kultur Elkargoaren argitalpenaren bitartez *Ikastola, un movimiento popular y pedagógico*, argitaratu da 2007an. Artikulu honetan, Nafarroako ikastolen azkeneko legeztapen berri ematen da.

ko hitzarmen baten zain zeudela. Hitzarmen honek, batetik, Nafarroak hezkuntza arloan dituen eskubide historikoak berretsi eta bere hezkuntza organo gorena, Hezkuntza Batzorde Nagusia, berregituratu behar zuen, eta bestetik, ikastolei instituzio irtenbide bat bilatzeko autonomia nahikoa aitortu:

(...) en lo referente al decreto pendiente por parte del Estado, que corrobora los derechos de la Diputación Foral de Navarra sobre la enseñanza básica. Esto es inminente sin que se pueda precisar fecha. De todas formas al aprobarse este convenio, la Diputación Foral de Navarra tendrá que reestructurar la Junta Superior de Educación, y será entonces el momento para organizar el apartado referente a las Ikastolas².

Bilkura honen ondoren, euskara irakasteko eta sustatzeko Oinarriak argitaratu ziren, eta haien bidez Euskara Sustatzeko Batzordea eratu zen³. Haietan, Nafarroako Foru Diputazioak konpromisoa hartu zuen “*eskura zituen bitarteko guztiak baliatuta*” hizkuntza hau irakasteko eta sustatzeko, batez ere eremu euskaldunean, eta euskara ama hizkuntza zuten haurrengan lehenasunez arreta jartzeko. Zazpigarren oinarrian zehazten da Diputazioaren Irakaskuntza Zerbitzuari dagokiola aztertzea, kudeatzea eta proposatzea “*haur euskaldunak eskolaratze aldera abiatuko diren ekintza guztiak eta, oro har, Euskara irakastea sustatzekoak*”. Aurrekoa ikusita ondoko beste erkidego batzuen aldean Nafarroak hezkuntza autonomia zegokionez aurrea hartua zuela ematen bazuen ere, errealitatea zen frankismoaren bukaeratik antzinera Estatuaren aurrean zituen estrategia eta indarra ahulduz joan zirela. Honen adibide garbiak dira 1980an Nafarroako Parlamentuak onartutako bi erabakiak eta horiek izan zuten bidea. Lehenbiziko adostasunak euskararen ofizialtasuna iragarri zuen eta, bigarrenaren bidez, estatutu berezia eskatzen zen ikastoletarako, Diputazioak erantzukizun zuzena izan zezan ikastolek gauzatutako eskola programetan. Ez batak, ez besteak, ez zuten Hezkuntza Ministerioaren oniritzia jaso, eta ez ziren indarrean jarri.

1982. urtera arte itxaron behar izan zen Autonomia Estatutua, “*Hobekuntza*” izenekoa, promulgatu arte⁴. Estatutu honek, bere 9. artikuluan, iragartzen zuen euskararen erabilera ofiziala arautuko zuen Foru Lege bat, 1986. urtera arte⁵ iritsi ez zena. Bitartean, hizkuntza bat baino gehiago zuten gainerako erkidegoetan elebitasunari buruzko legeak indarrean zeuden aspaldian. Halaber, hezkuntza gaiaren eskumenak eraldatzea Kataluniara edo Euskal Autonomia Erkidegora baino beranduago iritsi ziren. izan ere, eskumenak eraldatzeko prozesua aurrera joan gabe egon zen 1984tik⁶ 1990era⁷. 1982/83 ikasturtean lanean ari ziren 34

2. 1972ko abuztuaren 25ean Nafarroako ikastolen ordezkarien eta Nafarroako Foru Diputazioko Hezkuntza zerbitzuko arduradunen artean egindako bilkuraren akta, Nafarroako Administrazio Agiritegia, Foru Diputazioaren Fondona, 37476. kaxoia 1. karp.

3. Nafarroako Aldizkari ofiziala, 5. zk. 1973/1/10.

4. Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraintza Berrezarri eta Hobetzekoa.

5. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskararena.

6. 2356/1984 Errege Dekretua, abenduaren 19koa. Honen bidez Estatuak Nafarroako Foru Komunitateari zerbitzuak eskualdatzeko arauak ezartzen ziren. 7. EAO, 1985eko urtarrilaren 8koa.

7. 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitateari funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzearen ingurukoa. 210. EAO. 1990eko irailaren 1ekoa.

ikastoletatik⁸, hamabost Oinarrizko Hezkuntza Orokorra ematen ari ziren, eta gainerakoak eskolaurrekoa bakarrik. Gainera, haietako bi besterik ez ziren Hezkuntza Ministerioak baimena emandakoak, gainerakoak, berriz, oso ortodoxoa ez zen administrazio-estaldura baten pean ari ziren lanean.

Euskararen Legea promulgatzearekin batera, egoera berria sortu zen. Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatu zenez, euskarazko irakaskuntza eskaintzeko aukera desberdinak ezarri zituen administrazioak. Eremu euskalduneko ikastolak hasi ziren eztabaidatzen eskola publikoan eredu elebiduna eskatzeko eta bertan sartzeko aukera, azkenean gauzatu ikastolek hasieratik aldarrikatzen zuten hura: euskarazko irakaskuntza doanekoa izatea.

Zenbait ikastolaren ekonomia arazoez eragin zuten benetan ezin aukeratzea, eta ezinbestez argi egin zuten eskola publikoan sartzeko apustuaren alde, batere ordainik eskatu gabe. Horrela jakinarazi zuen Irurtzungoak, Federazioak 1989ko otsailaren 28an egindako bilkuran. Sare publikoan sartzeko erabaki zuten ikastolek Nafarroako Ikastolen Elkarteari (NIE) eskatu zioten etorkizuneko integrazioa, ahalik eta modu hobereanean negoziatzea. Ikastolek eredu publikoarekin “bat egitearen” inguruan burutu zen lehenbiziko elkarrizketetako bat 1988ko urtarrilaren 20an egin zen. Makina bat bilkura izan ziren gero.

NIEk hezkuntza arduradunei egindako eskariak bi ziren funtsean: arriskuan zegoen lekuetan euskarazko irakaskuntzaren jarraipena bermatzeko eta irakasleak lanean mantenduz ikastolatik eskola publikora eramateko.

Negoiazioetan behin eta berriz honako jokamolde hau eskatu zen: lehen fase batean erantzuna eman behar zitzaien Eskolaurreko etapa eskaintzen zuten ikastolei, bigarren negoziazio multzo batean sartuko ziren legeztatze prozesuan egonda administrazio irizpideak aplikatzea eskatzen zitzaizkien ikastolak, hirugarren multzo batean eremu ez euskaldunean zeuden ikastolei eman beharreko tratamendua jasoko zen, eta laugarren multzorako egonen ziren teorikoki sendo zeudenak, ituna zutenak edo lortzeko bidean zirenak.

1989an, Nafarroako zenbait ikastola hasi ziren eskola publikoan sartu edo ez erabakitzen. Haietako gehienetan ekonomia egoera jasanezina zen. Kontsulta egiteko hainbat bilkura, zirriborro, eztabaida publiko zein pribatu, mahai-inguru eta abar eginda, Ikastolen Konfederazioak Iruñean 1990eko martxoan egindako bilkura batean onartu zuen, gehiengo osoz, ikastolek beraiek egindako proiektu bat, Euskal Eskola Publikoaren proiektuaren filosofia zehazten zuena. Bertan ikastolaren herri izaera azpimarratzen da eta Gobernuak bere berezitasuna onartzeko beharra.

Federazioaren dokumentazioan ageri denez, 1990eko uztaileko, jadanik zortzi ikastola sartzeko erabakia hartuta zeuden. Nafarroako Gobernuak eskatu zuen, premia handiz, sinatzeko akordio zabal bat hala eskatzen zuten ikastolak

8. Zein diren jakiteko ikusi I. López-Goñi (2002): Nafarroa Garaiko Ikastolen Historia (1931-1982), 536-537 orr.

sar zitezen bermatze aldera, eta akordio hau 29 ikastolari eskaini zitzairen. Azkenean, akordio hau sinatu zuten Nafarroako Gobernuako Lehendakariak, Gabriel Urralburuk, eta Ikastolen Federaziokoak, Txomin Izkok, 1990eko uztailaren 4an.

1990eko uztailan sartzeari oraindik deliberatua ez zuten ikastola batzuek berehalakoan erabaki zuten. Sare publikoan ikastola hauek sartzeari aldaketa nabarmenak eragin zituen NIEren egiturari, eta erakunde honetan zuzendaritza aldatzea eragin zuten krisia sortu zen.

Une hartan administratiboki itxi zen Nafarroako ikastolen historiaren kapitulu-tuetako bat, nahiz eta bi aldeak ez ziren asebeste gelditu, berezko berezitasunak zituen integrazioa ez baitzen lortu, eta oraindik behin betiko ez baita konpondu guztien legeztatzea.

Atontzeko zeuden oraindik hainbat kontu, eta haietako bat zen udala tituluduna den ikastolen egoera berezia. 2003an beste modu batez arautuko zen, eta behin betiko, hiriburuko udal ikastolen administrazio egoera. Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmen baten bidez, Hezkuntza Departamentuaren mende gelditu zen udal ikastoleetako irakasleria⁹. Aldi berean, ikastola horien titulartasuna Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Sareari eman zitzaion¹⁰. Une hartatik aurrera, eta egundaino, Elizondoko Baztan ikastola da eskola mapan udal izaera duen ikastola bakarra.

2. IKASTOLEN HAZKUNDEAREN ETA LEGEZTATZEAREN ARAZOAK EREMU “EZ EUSKALDUNEAN”

1990/91 ikasturtean gatazkak izanzen zirela aurreikusten zen. Ikastetxeen antolakuntza, oro har, aldatzen hasi behar zen hezkuntza erreforma (LOGSE) berriaren aurrean, eta ikastolek oraindik ez zuten behar zen egonkortasuna aldatzeki behar bezala ekiteko. Hezkuntza sistemaren antolamendu berriak eragin zuen ikastetxeek buru-belarri lan egitea hainbat zeregin gauzatzeko: ikasturte berriak antolatu, ikasgaien programazio berria, aniztasunari egin beharreko arreta, hezkuntza proiektuak, berariazko curriculum proiektuak eta abar. Nafarroako ikastetxe guztietan pedagogia jarduera biziko hamar urte izan ziren orduan. Izan ere, beste hainbestetan bezala, Lege berria aplikatzeko tenorean Nafarroa Estatutuaren aurretik joan baitzen orduko hartan.

Bien bitartean, ikasleen matrikulatzeak euskarazko irakaskuntza duten ereduetan (A, B eta D) gora egiten zuen urtetik urtera. 1999ko aurrematrikulan, hiru urteko ikasleen %56,8 zeuden izena emanda halako ereduetan¹¹. Haietarik

9. 2003ko irailaren 22ko NAO, 121. zk.

10. 2003ko urriaren 13ko NAO, 131. zk.

11. *Diario de Noticias*, 1999/05/10, 13. or. “Ikasle gehienak euskara duten ereduetan aurrematrikulatu dira Nafarroan”.

%28,98 D ereduari aurrematrikulatu ziren, hots, euskara hutsez egindako irakaskuntzan, gaztelania ikasgaietariko bat izanik¹².

1991tik aurrera egoera berri bat sortua zen ikastola federatuendako, hau da, “eremu ez euskalduna” izendatutako eremuko ikastolendako (Berako Labiaga ikastola izan ezik, hau legeztatu gabea baita, baina eremu “euskaldunean”). Bost ikastola hauek legeztatze saiakera ugari egin ziren urte haietan. Horiek gizarte ekimeneko ikastetxeak ziren, Nafarroako Gobernuaren ikastetxeen erregistroan ageri ez zirenak eta, halere, urtez urte aurrekontu diru-saila zutena hezkuntza jarduerak aurrera eraman ahal izateko, Hizkuntza Politikako aurrekontuen kontura.

Garai hartan, Gobernuak, gutxienez, 20 haur hiriburuan eta 13 herrietan exijitzen zituen edozein ikastetxe legeztatze eta ituntzeko, eta Erriberako ikastolek ez zuten kopuru hori iristen. Gainera, indarrean zegoen 1004 Errege Dekretua¹³, ikastetxe batek baimena lortzeko bete behar zituen gutxieneko betekizunak zehazten zituen. Baimen hori ezinbestekoa zen itundu aurretik, eta aipatu ikastola horiek ez zuten betetzen.

Hiru ziren, hartara, une hartan bat egiten zuten faktoreak, ikastolak legeztatzea zailtzen (edo galarazten) zutenak: gutxieneko haur kopurua, 1004 Errege Dekretuaren betekizunak eta, azkenik, eremu “ez euskaldunean” D ereduak sortzeko ekartzen zituen lege-trabak (nahiz eta Tafalla eta Zangozako ikastolek lortua zuten beren egoera erregularizatzea, Euskararen Legea promulgatu aurretik, eremu “ez euskaldunean” bazeuden ere).

Legez kanpoko egoera honek, ondorio ekonomikoez gain, beste administrazio-irregularitasun batzuk ere eragiten zituen, hala nola: ikasleek gizabanakako laguntzak ez izatea hezkuntza behar bereziengatik, euren eskola liburuxkak beste ikastetxe batzuetako zuzendariak elkartasunez sinatzea -hauek erantzukizun handia hartuz-, langileek eskubiderik ez izatea instituzioetatik eskainitako prestakuntza hartzeko, lan-urte haiek merezimenduztat ez hartzea, kooperatibek inbertsioak egiteagatik laguntza ofizialak hartzeko aukerarik ez izatea, ezta zerga salbuespenak eta udalekoak izateko ere...

Milurteko berriaren hasieran, honako hauek ziren “legez kanpo” zeuden ikastolak, Berakoaz gainera: Irunberrikoa (Arangoiti) Lodosa eta Sartagudakoa (Ibaialde),

12. 2000. urtean, hiru urteko ikasleen aurrematrikula euskarazko ereduari honako modu honetan hasi zen: %30,78 A ereduari eta %31 D ereduari, *Diario de Noticias*, 2000/03/23, 12. or. D ereduak lortuko du bere egoera sendotzea 2003an, A ereduari gainbehera hasi zen eta G ereduari, immigrazioa handitzearen ondorioz bereziki, pixkana-pixkana gorako bideari hasi zen. 2004an aurrematrikulak honako emaitza hau eman zuten: %30 D ereduari, %24,5 A ereduari, %45,2 G ereduari eta gainerakoak I eta B ereduari. Une hartan eta Iruñerrian zeuden hiru ikastolen (Jaso, Paz de Ziganda eta San Fermin) edukiera aise gaintzen zuten aurrematrikula egonik, Elortz eta Aranguren ibarretan beste ikastola berri bat sortzeko aukera egon zen, guraso talde batek egindako lan handia gorabehera, aurrera egin ez zuena.

13. 1004/1991 E.D., ekainaren 14koa, unibertsitateko ez den erregimen orokorreko irakaskuntza ematen duten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko betekizunak ezartzen dituen (indarrean 2003ko abenduaren 11 arte).

Tuterakoa (Argia) eta Vianakoa (Erentzun). Herri haietan ospatua zuten ikastolen festa (Nafarroa Oinez¹⁴), familia askok kreditu pertsonalak eskatuak zituzten eta ikastolen sarearen elkartasun osoa jaso zuten Ikastolen Konfederazioak horretarako zuen mekanismoaren bidez, "Elkartasun Kutxaren" bidez, eta Legeak eskatutako baldintzak bete zituzten eraikin berriak eginak zituzten. Maila batzuetan nekez lortzen zuten gutxieneko haur kopurua, baina ez guztietan, eta haien gainean legez kanpo egotearen mamua zebilen mehatxuka, zeuden eremuan egoteagatik, nahiz eta, geroan ikusi zen bezala, borondate politikoa egonez gero, inolako lege-trabarik ez den.

Legeztatzeko jartzen ziren *Vascuenceren* legearen trabek, hots, zonalde ez euskaldunearn egotearenekin lotutakoek, oinarri juridikorik ez zutelako erakusten du honako gertaera honek: Gobernuak euskarazko D eta B hizkuntza ereduak zabaltearen eragozten zuen bitartean, ingelesezko¹⁵ ereduak, I eta J ereduak Nafarroa osoan zabaltzea proposatzen zuen. Egoera hau, gutxienez, bitxia dela esan daiteke, Legeak zorrotz interpretatuz gero, Nafarroako eremu batzuetan ikasleak gaztelania eta ingelesezko eredura joan daitezkeelako (I eredua), baina ez gaztelania eta euskarazko eredura.

Egoera bitxia zen, diru laguntzak ematen zituen erakunde publikoak berak hainbat kontu ez zituen ofizialki aitortzen, esaterako: Gobernuak irakasleak kontratatzeko tenorean ikastola horietan emandako urteak ez zituen kontuan hartzen¹⁶, edo ikastetxeetako zentroak ez ziren sartzen modu zuzenean hezkuntzako estatistiketan –baina bai zeharka eskola txostenak eskatzean–. Halere, bai Hezkuntza Departamentuak, bai Hizkuntza Politikak, bazuten bere hezkuntza lanaren normaltasunaren berri.

Irakaskuntza ez zen beste esparruetan ere egoera mugitua zen. Kanean eta erakundeetan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko borrokan aritzen zen jende anitz. 1999ko urtarrilaren 22an Euskararen Kontseiluko 20 kideetatik 12k dimisioa aurkeztu zuten, Gobernuaren jokamoldea zela kausa. Hizkuntza normalizazioaren inguruan aholkulari izaera zuen organo honek, eta aurreko Foru Gobernuak (PSOE) sortu zuen. Dimisioa aurkeztutako batek –José María Satrustegik, Euskaltzaindiko ordezkariak– arrazoitu zuenez, UPN-k “aholkularitza organo hau edukirik gabe uztearen aldeko apustua egin du, eta jardute-araua bera hautsi du”¹⁷. Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Javier Marcotegui jaunak, erantzun

14. Ezin da aipatu gabe utzi 2003ko Nafarroa Oinez festa, Irunberriko Arangoiti ikastolak ospatua. Eguraldiaren ondorioz festa bertan behera utzi ondoren eta galerak zenbakitan jarri aurretik, ikastolen sarearen bidez milaka herritar anonimok, elkartasunak bultzatuta, diru-ekarpenak egin zituzten, ikastetxe horrek izanzen zuen ataka larria saihestu zutenak.

15. I eredua: ikasgai guztiak gaztelaniaz eta ingelesez ematen dira. Gutxienez, eskola denboraren %30 ingelesezko klaseetarako gordetzeko asmoa dago. J eredua: I ereduaren antzekoa, baina euskara ikasgai dauka.

16. Nafarroako Hezkuntza Itunaren Segimendu Batzordeak atzera bota zuen 2001eko urtarrilaren 7an LAB sindikatuak egindako proposamena. Irakasleriari esperientzia aitortzea eskatzen zuen, edozein ikastetxe pribatutan bezalaxe.

17. *Diario de Noticias*, 1999/1/23, 17 or.

zuen, Miguel Sanzen bozeramaile gisa, esanez dimisioen atzetik ezkututzen zirela politika arrazoiak, eta euskara tresna bezala erabiltzeko saiakerak.

Oinarriak plataformak, Nafarroako gizarte eta kultura erakunde zenbait bere baitan biltzen zituenak, komunikabideen aurrean¹⁸ aurkeztu zuen bere ekimen berria: 25.000 sinadura biltzea Euskararen Lege berri baten alde. 1999ko abenduaren 1ean agertu zen komunikabideetan. Une hartako gobernu kontserbadorako lehendakariak, Miguel Sanzek, 2000. urteko lehen hilabetean Akitaniaren, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko elkarlan protokoloa haustea erabaki zuen. El País egunkariak argitaratutako elkarriketa batean aipatu zuen “Eusko Jaurlaritzak eraso egiten dio Nafarroari”¹⁹ eta, gainera, ikastolek historia faltsutua zutela zioen.

Baina Nafarroako alderdi nagusia, UPN, eta bere gobernuakidea, CDN, hasiak ziren jadanik bat ez etortzen Nafarroan aplikatzen ari zen Hizkuntza Politikarekin. Hezkuntza Sailak euskara Europako “erabilera ofizialeko” hizkuntzen pare jotzen zuen, baina CDN ez zegoen ados.

Aurreko legegintzaldiaren bukaeran krisi larria egona zen Hizkuntza Politikaren barnean, abian jarritako politikarekin ados ez egotearen ondorioz goi karguen dimisioa ekarri zuena²⁰. UPNko gobernuak egina zuen orduan normalizazio zerbitzuaren eskumenen berregituratzea –beheranzko joera zuena–, Unibertsitatekoekin batuz. Honela, Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusi mistoa eratu zen.

Nafarroako Parlamentuak 2002an Lege bat onartu zuen, eta hartan ezartzen zen, alde batetik, ikastetxe hauek diruz lagunduko zirela Nafarroako 2000ko aurrekontuetan²¹ bildutako behin-behineko erregimen berezi baten arabera, baina, bestetik, 2002. urtetik aurrera 2000ko aurrekontuen arabera finantzatuko zirela, ikasle kopuruaren arabera modulua eguneratuz. Kontraesanek beteriko Parlamentuko xedapen hauek ikastetxeei ordaindu beharrekoa behin eta berriz atzeratzen zuten, eta honen ondorioak nabarmenak ziren irakasleei zein hornitzaileei nominak zein atzerapenak ordaintzerakoan.

Euskararen inguruan politika munduan gatazka giroa gertatzen zen bitartean, ikastolek lanean jarraitzen zuten irakaskuntzaren kalitatearen alde. Honela, Konfederazioaren proiektu eleaniztunak jaso zuen 1998an kalitateari emandako

18. *Diario de Noticias*, 1999/12/1, 8. or.; *Deia*, 1999/12/1, 20. or.; *Egunkaria*, 1999/12/1, 20. or.; *Gara*, 1999/12/12, barneko erreportajearen 9-13 or.

19. *El País*, 2000/1/30, 6. or.

20. Zuzendariak, Pérez de Viñasprek, eta zerbitzu nagusietako arduradunek, hots, Programazio eta Ikerkuntzakoak eta euskararen Normalizazio eta Sustapenekoak (José Manuel Urroz eta Juan Ramón Elorz) kargua utzia zuten.

21. 2000ko aurrekontuetan, kontu-sail osoa zehazteaz gain, testua honako modu honetan biltzen zen: “Diru laguntzen erregimen berezi batean bilduko dira eremu ez euskaldunetan dauden ikastolekako gelak, benetan lanean ari direnak, nahiz baimenik ez izan edo erregimen orokorrean ezarritako gela bakoitzeko ikasle kopurua ez bete”.

europar zigilua Hezkuntza Ministerioaren eskutik, bertako burua Esperanza Aguirre zela. Bere aldetik, Nafarroako Ikastolen Federazioak lortu zuen hautagai egotea Vianako Printzearen saria jasotzeko 2000ko apirilean, nahiz eta gero ez zuen irabazi.

Denek nahi zuten Euskararen Legea aldatzea baina, kolektibo edo erakunde bakoitzak kontrako norabide ezberdin baten aldera. Nafarroan gobernatzen zuen alderdiko buruak gaztelaniadun elebakarrendako urratzaile zelakoan Lege hori murriztu nahi zuen bitartean, Oinarriak plataformak ofizialtasuna Nafarroa osora zabaldu nahi zuen. "El euskara, la última batalla política en Navarra" zioen *El Mundo* egunkariaren azalak, gertatutako egoeraren berri emanez²². Bitartean, aipatu plataformak, aurreikuspen guztiak gaituta, 48.246 nafarren sinadurak lortu zituen, CIES delakoak egiaztatutakoak, ofizialtasuna hedatzearen aldeko manifestuarekin bat eginez²³.

Aldi gogor hura, Nafarroako Gobernuaren aldetik euskararen aurka oso jarre-
ra bortitza erakustekoa eta adostasunari batere mesederik egiten ez ziona, are
gehiago zabalduko zen gero. Hala ere, ikastolen aurkako erasoak ez ziren hurbi-
leko inguruan gelditu. Urte hartako ekainean, ikasturtea bukatzeaz zegoela,
honako albiste honekin gosalduta genuen: "La Real Academia de la Historia afirma
que las ikastolas favorecen el racismo"²⁴.

Historialariak, oro har, eta Akademiaren munduko jendea, bereziki, zur eta
lur gelditu ziren halako zentzugabekeria baten aurrean. Herri iritziak, oro har, uste
izan zuen "Real Academia" delakoa urrunegi joana zela batere oinarriak ez zuen
txosten bat aurkeztuta. Akademia horretako zuzendariak berak onartzen zuen
ikastolei buruzko aipamena beste modu batez idazten ahal zela²⁵. Halere, Foru
Gobernuak egoera baliatu zuen, eta urte hartako abenduan erabaki zuen estatu
mailako argitaletxei laguntzea eta ez bertakoei –azkeneko hauek euskaraz argi-
taratzen zuten zuzenean–. Halaber, testu liburuetan agertzen ziren ikurriñen eta
Nafarroa barne zuten Euskal Herriko mapen aurka jotzen hasi zen.

Nahiz eta kritika asko izan ziren, susmoak egotea lortu zen eta, batez ere,
estatu mailan giroa nahastea. Nahasmendu hori baliatu zen PP alderditik etor-
tzeoak ziren hezkuntza gaiari buruzko erreformak prestatzeko -Pilar del Castillo
zen orduko MECD delakoaren burua (2000-2004)-. Ministeriotik autonomia
erkidegoetan ematen diren curriculum edukiak kritikatzeko hasi ziren PPren erre-
formari bidea prestatu nahian. Erreforma honek Kalitatearen Legea edo LOCE

22. "A pesar de que Sanz dice que es discriminatorio, sólo es necesario para 961 puestos de los más de 17.000 funcionarios", *El Mundo*, 2000/4/9, 18. or.

23. 2000. urteko apirilaren 9an, igandea, kanpainaren azkeneko elkarretaratzea egin zen, eta tokiko egunkariak jaso zuten, azalean batzuek, barnean besteek: *DN, Diario de Navarra, Gara, Egunkaria, El Mundo, Deia*.

24. *Gara*, 2000/6/28, 22. or.

25. "Gonzalo Anés niega presiones políticas dirigidas a la academia de historia", *Diario de Navarra*, 2000/6/30, 2. or. *El Mundo* ere bai: "Anés reconoce que sobra la alusión a las ikastolas", 2000/6/30, 37. or. Baita *El País* ere, 2000/6/30, 30. or.

izenak hartu zituen, eta 2004an egon zen gobernu aldaketa zela eta, azkenean ez zen erabat garatu.

Hizkuntza politika, eta, beraz, Euskararen Legea, tentsio nabariak sortzen –edo berpizten– ari zen, halaber, Nafarroako Alderdi Sozialistaren baitan. Hala aipatzen zuen iritzi-zutabe horietako baten egileak²⁶. 2005eko martxoaren 5ean eskualdeko batzordea bildu zen Lege horri buruzko jarrera eztabaidatzeko. Eztabaidan nabarmen gelditu zen nafar sozialismoaren zati baten jarrera kritikoa. Hauek defendatzen zuten, ordura arteko bide beretik jarraituz gero, *de facto* babesten zela UPNko gobernuaren hizkuntza politika. Hala eta guztiz ere, hau ez zen PSN alderdiaren barnean zegoen gehiengoaren jarrera eta bilkura hartan hartu zen erabakiak, oro har, Euskararen Legea babestu zuen, legez kanpoko ikastolendako aterabide bat eskatzen bazen ere.

Martxo eta apirila bitartean Parlamentuko alderdiek hizkuntza politikaren inguruan lan egin zuten eta euskarari buruzko txosten berri bat egin zen. Honek eremu mistoko alderdi batzuk aldatzen zituen baina, funtsean, ez zuen ukitzen 1986ko Legearen mamia. Azkenean, Euskararen Legea aldatzeko saiakerak porrot egin zuen, 2005eko apirilaren 13an ez baitzen txostena onartu Nafarroako Parlamentuko bozketan.

Euskararen Legearen funtsezko aldeak aldatu ez baziren ere, UPN eta CDN alderdiek gobernu hitzarmen bat lortu zuten 2003-2007 legegintzaldirako, eta horrek aipamen zehatza egiten zien ikastolei. Horren arabera, 2005eko abuztuaren 31 arteko epea zegoen instalazioak eta legezko betekizunak egokitzeko eta baimena lortzeko. Hitzarmen horretan Labiaga ikastola ez zen aipatzen, nahiz eta bere kasua legez kanpo zeuden gainerakoekin batera aurkezten zen beti.

2005eko maiatzaren 24an, NIEk oinarrizko akordioen proposamen bat egin zuen bost ikastolak legeztatze aldera. Lehenik CDN alderdiari aurkeztu zitzaion –UPN alderdirako zubi lana egin zuen–, eta, gero, Parlamentuko gainerako alderdiei, ezker abertzalea barne. Ikastetxe guztiak legeztatzea eskatzen zen, baita euren bideragarritasuna ere, eta horretarako aholkularitza enpresa independente batek egindako finantza plan bat aurkeztu zen. Labiaga ikastolari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ikastolako kooperatiba-bazkideekin zuen zorra barkatuko zuen legeztatua izatearen truke.

UPN eta CDN alderdiek adostu zuten 2005eko abuztuaren 29an, haiexek ezarritako epea bukatu baino bi egun lehenago, Hezkuntza Departamentuak bost ikastolak aztertzen hastea, banan-banan, itunduak izateko beharrezko betekizunak betetzen ote zituzten egiaztatzeko (unitate kopurua, ikasle kopurua unitateko, irakasleen titulazioa eta indarrean zegoen araudiak exijitutako instalazioak).

Irailaren 1ean, hurrengo ikasturtea hasi zen finantza akordiorik gabe. Foru Gobernua epearen legezko luzamendu bat aztertzen ari zen, ordura arte eginda-

26. N. Ayarra: "La política lingüística revive la división del PSN entre partidarios de Chivite y Lizarbe", *Diario de Navarra*, 2005/3/4, 28. or.

ko finantza formula abuztuaren 31n agortua baitzen. Garrantzi handikoa zen, azkenik, egoera konpontzeko nahia sumatzen zela Gobernuaren aldetik, nahiz eta bi bazkideen artean, UPN eta CDN alderdien artean zeuden aldeak handi samarrak ziren.

3. PROZESU LUZE BATEN BUKAERA

Akordioa, azkenik, 2006. urtean sinatu zen. Legez kanpo zeuden bost ikastolak (lau eremu “ez euskaldunear” eta Berako ikastolako DBHko lehen bi mailak) legeztatzeko prozesuari akabera ematen zion akordioa zen hura, bidenabar ikastola horien bideragarritasuna ahalbidetuko zuen prozesua abiarazten zuena. Akordioa gauzatu zenean, ikastola horiek guztiek Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen zituzten, eta Argia zein Labiaga ikastolek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak eta ikastolen ordezkariak –Irunberri (Arangoiti), Fontellas-Tutera (Argia), Lodosa-Sartaguda (Ibaialde), Viana (Erentzun) eta Bera (Labiaga)– 2006ko ekainaren 30ean jarduteko protokolo bat sinatu zuten. Helburua zen ekonomia bideragarritasuna epe luzera bermatuko zuen esparrua ezartzea. Azkeneko proiektuan egon beharreko aparteko finantziazioaren neurrien gaineko jarraibideak sartu ziren. Halaber, gehieneko kopuruak zehaztu zituen, (1,7 milioi euro urtean) 2006ko irailaren baten eta 2010eko abenduaren 31 artekoak.

1. taula: Eremu “ez euskalduneko” ikastolen finantziazioa

Urtea	Ituna	Aparteko finantziazioa	Guztira
2006	1.459.406,75	192.902,49	1.718.253,90
2007	1.454.342,40	344.381,67	1.798.724,07
2008	1.603.775,49	154.713,51	1.758.489,00
2009	1.651.888,75	106.600,25	1.758.489,00
2010	1.701.445,41	57.043,59	1.758.489,00

Geroago, urratsak protokoloak exijitutakoaren arabera egin ziren. Honela, Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko azaroaren 14an egindako azken osoko bilkuran, Nafarroako ikastola guztiak legeztatzeko akordioa berretsi zuen. Nahiz eta erakunde horrek aholkularitza izaera besterik ez izan, Eskola Kontseiluak begi onez ikustea bideragarritasun esparrua biltzen duen Legearen aurreproiektua baldintza *sine qua non* zen baimena eta ituna lortzeko prozesuan. Nafarroako Gobernuak, 2006ko azaroaren 27an egindako kontseiluan, horiek finantzatzeko Lege aurreproiektua onetsi zuen.

Azkenean, Parlamentuak 2007ko matxoaren 15eko saioa egin zuen. Eguneko zerrendako 10. gaien ageri ziren eremu “ez euskalduneko” ikastolak finantzatzearen gaineko Foru Legearen eztabaida eta bozketa²⁷. Legea NAOn argitaratu zen. Bertan, ageri den aparteko finantziarioari buruzko argudioak emate aldera, bi inguruabar aipatzen dira. Lehenik, legegilea Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak (LOE), martxoaren 3koak, eskaintzen dituen finantza aukeretan oinarritzen da:

Quien atribuye a las Administraciones Educativas la posibilidad de asignar mayores dotaciones de recursos a determinados centros privados concertados en razón de los proyectos que así lo requieran o en atención a las condiciones de especial necesidad de la población que escolarizan.

Gero, 1990etik aurrera Hezkuntza Administrazioaren aurrean ikastetxe hauendako finantza egokiagoa lortzeko behin eta berriz erabili diren argudioak onartzen ditu, hau da:

Que dadas las peculiares características de las ikastolas a las que se refiere la presente Ley Foral, que atienden a poblaciones inferiores a 5.000 habitantes, se considera que aún en el caso de autorización y concierto de los mismos, su viabilidad económica no estaría garantizada a corto plazo, por lo que se estima necesario adoptar medidas de financiación extraordinarias que permitan mejorar la atención y el servicio educativo que prestan estos centros.

Legea aho batez onartu zen, gaueko bederatzietan, baina ez NIEk hobetzeko aurkeztu zituen proposamenak: bata, kontu-sailari KPIa aplikatzekoa, bestea, irakasleei merezimenduak aitortzekoa. Modu honetan Nafarroako ikastolen eskola mapa ofizialki egonkortzen zen lehenbiziko aldiz.

Aipatzen ari garen Foru Lege honekin, eremu “ez euskalduneko” ikastolen aparteko finantziarioa arautzea helburu zuenarekin, Nafarroako ikastoletarako garrantzi handiko aldi bat itxi zen. Hala ere, mende berriaren hamarkadaren azken urtea ez dirudi erraza izanen denik. Bereziki mugituztat jo dezakegu 2009ko azken sei hilekoa, izan ere eta euskara aitziki dela berriro ere Hezkuntza Kontseilaria eta CDNkoa zen Carlos Pérez Nieves jaunak kargua utzi zuen eta ordezkaturia izan zen Alberto Catalán UPNko jaunarekin. Nafarroako ikastolak berriro ere erasotutak izan ziren hau gertatu eta gutxira eta oraingo honetan erabili ziren zioak bi izan ziren.

Lehena ia zaharra zen, UPN alderdiak ez zuela onartzen Ikastolek erabiltzen zuten curriculum, beste arrazoi instituzionalak badira ere (bandera, sinboloak, lurraldetasuna etabar) mahairatzen zirenen artean nagusia “Nafarroako curriculum” ez zela betetzen zen. 2009ko udazkenean UPNk gai hau aireztatu zuen *Diario de Navarra* egunkarian²⁸.

27. 7/2007 FORU LEGEA, martxoaren 23koa, eremu ez euskalduneko ikastolak finantzatzekoa. Ordura arte, unibertsitatekoak ez ziren irakaskuntzak hobetzearen inguruko 26/2002 Foru Legearen, uztailaren 2koaren, arabera finantzatzen ziren.

28. “Educación detecta que los libros de 27 colegios de euskera no se ajustan a la realidad Navarra- El departamento pedirá la sustitución voluntaria de estos libros antes de abrir expedientes. El consejero considera que este material es "inaceptable" y afirma que "debe desaparecer de todas las escuelas", *Diario de Navarra*, 2009ko urriaren 19a.

Bigarren zioa Estatuko Aurrekontu Orokorrekin lotu zen. Izan ere, Madrilen PSOE eta EAJ alderdiek akordio batera iritsiak ziren Nafarroako Ikastolek zuten diru beharrak asetzeko Estatuko Aurrekontu Orokorretan bi miloi euro sartzeko. Honek ekarri zuen berehalako polemika: “Madrilek Ikastolei dirudik ez emateko eskatu du UPNk”²⁹ eta UPNko barruko eztabaida sortu zuenez, hagitz “mediatiko” suertatu zen auzi hau³⁰. Hala ere, Nafarroan PSOEek eta UPNk zuten akordioari esker bertan behera gelditu zen gaia³¹.

Ikastolen mugimenduak Nafarroan ez du hamarkada lasairik izan. Hala ere, aurrera egiten du hizkuntz baten alde entusiasmo eta gogoei eusten dielako. Berriro ere prozesu guzti hau bere osotasunean ulertzeko profesionalek, gurasoek eta izaera ugariko elkarte anitzek emandako milaka lan-orduri begiratu behar-ko zaio. Uste dugu esan dezakegula lana ongi egitearen ondorioz ikastolek ekarpen handia ekarri diotela Nafarroako pedagogiari.

Irene López-Goñi

29. Berria, 2009ko urriaren 27a, 13 or.

30. “PSOE y PNV acuerdan dar 2 millones a la Federación de Ikastolas de Navarra”, *Diario de Navarra*, 2009/10/25, 30 or; “Madrilek dirurik ez emateko eskatu du UPNk”, *Berria*, 2009/10/27, 13. or; “UPN prefiere perder dos millones del Estado que dárselos a las ikastolas”, *Diario de Noticias*, 2009/10/27, 3 or; “UPN pide la retirada de la enmienda para las ikastolas que Miguel Sanz califica de ‘estupenda’”, *Deia*, 2009/10/27, 25 or; “Barcina se impone a Sanz en los presupuestos del Estado. Sanz y Barcina volvieron a discrepar ayer por los 2 millones para las ikastolas”, *Diario de Navarra*, 2009/10/27, 1 or; “Sanz censura al diputado de UPN por calificar de injerencia las ayudas para las ikastolas”, *Diario de Navarra*, 2009/10/28, 1 or.

31. Honen harira COPE irratia ere iruzkin iraingarri batzuk egin zituen ikastolen kontra, “terrorismorako ikastetxeak zirela” eta nola horrelakoei dirua ematen ahal zaiela galdetuz. NIEk Gotzaigoan errektifikazioa eskatu bazion ere irрати honek erdizkako bat egin zuten.